

ESKOLA AGENDA 21: HERRIKO IKASLEAK ENERGIA ETA URAREN KONTSUMOAK AZTERTUZ

Alaitz Egiazabal

2008. urtean, Errenteriako Udalak Eskolako Agenda 21 programarekin bat egin zuen, garapen iraunkorra bai ikastetxeetan bai ikastetxeen bitartez herrian sustatzeko. Aurtengoa programa garatzen den seigarren urtea da, eta dagoeneko 7 ikastetxe eta 3.509 ikasle biltzen ditu egitasmoak:

- Cristobal Gamon LHI
- Koldo Mitxelena BHI
- Langaitz ikastola LH
- Langaitz ikastola BHI
- San José Hijas de la Cruz ikastetxea
- Don Bosko ikastetxea
- Telleri-Alde Sagrado Corazón ikastetxea

Ikasturte bakoitzean ingurumenarekin lotutako gai bat hautatzen da eta gai hori ikastetxeko eta herriko egoeran aztertzen dute ikasleek, Errenteria urtez urte herri jasangarriagoa bihurtzeko. Jada, gai ezberdinak landu dituzte; hondakinak, energia, ura eta bioaniztasuna, esaterako.

Ikastaro honetan kontsumo jasangarria lantzen aritu dira eta lehengo urteko gaiari jarraipena emanez, energia eta ura kontsumoen atalak berrikusi dituzte. Aurten, bi azpigai horietaz gain, teknologien kontsumoa eta erosketa-ohiturak ere aztertu dituzte.

Ikasturte hasieran ikastetxe barneko egoera ikertzen aritu dira eta ondoren kalera atera dira kontsumoaren gaia herritarrekin batera aztertzeko.



Eroskiko supermerkatuan egon dira marketing teknikak aztertzen eta inkestak egiten, Xabier Olaskoaga plazako azokan galdetegiak bete dituzte, eta herriko denda txikietan ere jendearen erosteko moduak aztertu dituzte.

Ikasturtea amaitzean, ikastetxe bakoitzean landutakoa biltzeko foro bat antolatzen da. Bertan,

ikastetxe bakoitzean egindakoa eta Udalari egin nahi dizkioten proposamenak biltzen dira elkar ezagutzen duten bitartean.

Azkenik, Artelatz ingurumen enpresaren laguntzaz, buletin bat argitaratu da eta Udalbatza bat antolatzen da alkate eta zinegotzietan, non ikasleek bildutako proposamenak aurkezten dituzten.

